

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

372/2026 Foru Agindua, uztailaren 21ekoa. Nerea Aretxabala Rebolleda udal funtzionarioaren halabeharrezko izendapena egitea, 2026an Artziniegako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostuaren eginkizunak betetzeko, lanpostuaren titularra aldi baterako ezintasunagatik edo absentsiagatik, oporregatik, norberaren gauzetarako arrazoiengatik edo beste arrazoi batzuegatik ez dagoenean, hilabetetik beherako aldietarako

Artziniegako Udalak eskatu du, 2026ko uztailaren 16ko sarrera datako idazkiaren bidez, Nerea Aretxabala Rebolleda Artziniegako Udaleko karrerako funtzionarioaren halabeharrezko izendapena egitea, 2026an Artziniegako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostuaren eginkizunak betetzeko, lanpostuaren titularra aldi baterako ezintasunagatik edo absentsiagatik, oporregatik, norberaren gauzetarako arrazoiengatik edo beste arrazoi batzuegatik ez dagoenean, hilabetetik beherako aldietarako.

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ahalbidetzen du halabeharrezko izendapenak egitea, estaturako gaikuntza duten funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan beharrezkoak diren ordezkapenak egiteko, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. artikuluan jasotzen diren kasuetan.

Lehen aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan adierazten da ezen lanpostuaren titularra aldi baterako ezintasunean edo oporregatik, norberaren gauzengatik edo beste arrazoi batzuegatik kanpoan dagoen kasuetan, toki erakundeko bertako funtzionario bat aldi baterako izendatu ahal izango dela hilabete baino gutxiagoko aldietarako, korporazioen lehen-dakariak proposaturik, autonomia erkidegoko araudiaren arabera.

Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikuluan xedatutakoa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (25. artikulua) idatzita utzi zuen moduan, non toki korporazioetan aldi baterako langileak izendatzeko eskumen eremua zehazten baita.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan (ALHAO, 36 zk., 2023ko martxoaren 27koa) jasotzen diren eskudantziak betez, eta nire eskumenekoak diren ahalmenez baliatuz eta horrenbestez

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Nerea Aretxabala Rebolleda Artziniegako Udaleko karrerako funtzionarioaren aldi baterako izendapena egitea, 2026an Artziniegako Udaleko idazkari lanpostuaren eginkizunak betetzeko, lanpostuaren titularra aldi baterako ezintasunagatik edo absentsiagatik, oporregatik, norberaren gauzetarako arrazoiengatik edo beste arrazoi batzuegatik ez dagoenean, hilabetetik beherako aldietarako.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Artziniegako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten zaizun erabaki hori behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango duzu zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Nolanahi ere, aurrez aukerako errekerimendua egin ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 21a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA